

MIREN AMURIZA, IDAZLEA ETA BERTSOLARIA

“Nobela zaintzaz baino, interdependentziaz ari da”

Berriz, 1990. Euskal filologia ikasia. Bertsolaria. Prentsan zutabegilea. Haur literatura idatzi du eta *Basa* (Elkar) da idazle izena eman dion lehen liburua. Eleberriak XX. Igartza saria irabazi zuen 2017an. Sabina Gojenola da protagonista, Altzerreka baserria gobernatzen duen alarguna. Basa eta egoskorra da. Henry koinataren zaintzaz arduratzen da eta nekez moldatzen da seme-alabekin.

✂ MIKEL ASURMENDI 📷 DANI BLANCO

Bertsolari izateak laguntzen al du idazle gisa plazaratzen?

Denetik daukala uste dut. Idazteari berari dagokionez, bertsolariok hizkuntzarekin daukagun trebakuntza lagungarria da, batez ere, ahozko erregistroei dagokionez, hizkuntzaren ezaugarri asko erabiliak baitira bertsolaritzan. Agian, narrazioan hori ez da igartzen, baina elkarrizketetan bai. Nik horiek bertsolaritzatik jaso ditut. Gero, bi jardunak hain dira diferenteak! Nik bertsolaritza bizi dut barrutik kanporanzko jardun bezala, idaztea, aldiz, kanpotik barrurako ariketa da niretzat. Bertsotan aritzeko behar dudana aldarte optimoa eta idazteko behar dudana guztiz diferenteak dira. Horretaz konturatu naiz asko idazten aritu izan naizen garaietan; asko kostatzen zitzaidan plazara ateratzea, tenperatura eta erregistro aldaketak menperatzea. Gorputzaldi oso ezberdinez jarduten dugu bi zereginetan.

Bertsolari izatea estigma al da idazle izaterako bidean?

Beti egon da eta egongo da orain ere bertsolari izateagatik errezeloz begiratu-ko gaituenik, baina edozein lan egiten

duzunean ikusgarritasun apur bat izaitea, hasieran batez ere, bentaja moduan ikusten dut. Gero, nik idazleen mundua ez dut hainbeste ezagutzen, ez dakit zer pertzepzioa eduki dezaketen bertsolarion lanaz, eta nahiago dut horretan ez pentsatu. Saiatzen naiz zurrunbilo horretatik aparte samar ibiltzen.

Uxue Alberdiren Kontrako eztarritik eta Eider Rodriguezen Emakumeen gorputzak saioek zer esana eman dute. Emakume bertsolari eta idazleei buruzko liburuak dira. Zer adierazten dute liburuok?

Biek ala biek hitz egingen dute sortzeko edo norbere lana plazaratzeko orduan gaur egun, oraindik, emakumea izateak dakartzan zailtasun erantsiez eta uste dut batera samar argitaratu izanak elkarren

osagarri egiten dituela. Hor ikusten da, beste behin ere, emakumeak azpiratzeko mekanismoak ez direla praktika isolatuak, heteropatriarkatua sistema oso bat dela, alegia, gure jardunak ere alderik alde zeharkatzen dituen.

Bertsolari emakumeon kasuan, azken urteotan indartu dugun saretzearen barruan etorri da gogoeta kolektibo hau eta denetariko erreakzioak iritsi zaizkigu. Ez dakit esaten liburuak epe ertainera zelako eragina edukiko duen, baina oraintxe bertan bertsotan hasi berri den neskato bati arnasa apur bat emateko balio badu edo bertso-munduan dabilen edozein gizonezko bere praktikak birpentsatzera eramateko, horixe gehiago. Niri, adibidez, baliagarriak egin

zitzaizki-dan *Basa* aurkeztu nuenean Eiderrek bere liburuan aztertzen dituen hainbat alderdi: egiletasunaz, postura literarioaz...





Zure liburura etorrita, egun bereziki, iragan berri den gatazka armatuaren inguruko memoria historikoa landu behar dela esaten da, fikziotik landu ere. Zuk ez duzu aukera hori egin.

Nork dio nahitaez gatazka politiko-armatuaz aritu behar garenik? Ez dakit. Nik nobela honetan ez dut hortik jo baina nire belaunaldi-kideak izan daitezkeen idazleen lanak datozkit gogora eta haiek ere bestelako gaiak landu dituzte, orain arte lehen lerroan egon ez arren, euskal jendartearen gatazkek horiek ere. Distantzia kontua dela esango nuke, perspektiba kontua. Niri, adibidez, oso zaila egingo litzaidake bizi izan ez dudun garai bati buruz idaztea, gaia edozein dela ere, eta gatazka politiko-armatuaren kasuan, uste dut oraindik ez dela pasatu guk bizi izan ditugun garaiak fikzionatzen hasteko adina denbora. Egia da *Basa*-n beste gatazka mota batzuek daukatela zentralitatea baina istorioa espazio-denbora koordenatu zehatz batzuen barruan kokatzen da eta kontestu hori ondo zaintzen saiatu naiz. Uste dut, lerro artean bada ere, hainbat pertsonaiak ematen diotela aukera irakurleari ideologikoki non mugitu litezkeen irudikatzeke.

Zergatik hautatu duzu baserri giroko istorio hau sortzea? Altzerreka baserriaren modukorik ba al dago egun?

Bai, hainbatek aipatu didate Altzerreka

beren inguruko baserriekin identifikatu dutela. Era berean, batek baino gehiagok galdetu dit harriduraz: zu gaztea izanik nola idatzi duzu horretaz? Zer konexio duzu mundu horrekin? Nobelan agertzen den mundua oso neure sentitzen dut, ezagutu dudun zerbait da, eta nire pretentsioa ez da izan hainbestetan aipatzen den mundu horren balizko amaieraz idaztea. Nik Sabinaz hitz egin nahi nuen eta pertsonaia ahalik ondoen kontestualizatzen saiatu naiz tokatu zaion testuinguruak bere izaeran zelan eragin duen erakusteko.

Mundu "basa" hori ez da amaitu beraz.

Jendarteak basa izaten jarraitzen duen neurrian, Sabinaren temperamentua daukan jendea badago, eta egongo da. Sabina-ren basatasuna baserriaren kontestuan agertzen da, animalien bidez transmititzen da, Sabinak buruan dauzkan tresna psikikoak eta ez psikikoak maneiatzen ditu, eta seguru nago, hona, Berrizera esaterako, Extremaduratik bizitzera etorri zen emakume hark, Sabina bezala alargundu zenak, bere bizimodua aurrera atera duenak –Sabinaren gorputza zeharkatzen

dituen gatazka asko bizi dituenak– basatasun hori bizi duela. Noski basatasun diferentea adieraziko du, kalekoa kontestua diferentea delako.

Euskal Herria: baserriko mundu "zaharra" eta kaleko "berria". Ba al dago "bitasun" hori oraindik ere?

Sentsazioa daukat luzaroan aritu izan garela dikotomia horren kontaketaekin baina esango nuke gaur egun banaketa hori ez dela garai batean bezain zurruna, nahiz eta oraindik elkarrengandik oso urrun dauden ekosistema txiki asko egon gurean. Uste dut bitasunetara mugatzeak ez diola batere mesederik egin gure narratibari, ez erreallitatean ez fikzioan.

Sabina emakume zinez basa da. Nondik elikatu zara berau gorpuzteko?

Perfil horretako andre bat baino gehiago eduki dut nire inguruan txikitatik, bakoitza bere matizekin. Baserri-auzo batean sortua naiz, alaba bakarra naiz, eta beti ibili izan naiz auzoko baserrietan edo amamarenean sartu-irtenean. Nire haurtzaroko iruditeria baserriari lotua da eta andrazkoen inguruan gogoratzen ditut esperientziarik gehienak. Urteetan hainbat irudi eta oroitzapen gordeta izan ditut eta helduarora iritsi ahala berriz ere agertzen hasi zitzaizkidan. Andre horiek txakurrekin borrokan edota konejuak larrutzen, eskuak odolduta ikustea, zerbait naturala izan da niretzat. Gerora, bizipen horien irakurketa sakonago bat egin ostean, iruditut zitzaidan egon zitekeela zerbait kontagarria, beste batzuentzat ere identifikagarria izan zitekeen pertsonaia indartsu bat sortzeko adina mami egon zitekeela. Orain arte kontatu ez dena beharbada.

Egungo zaintza jarduera ekarri duzu hizpidera, besteak beste.

Bai, baina, niretzat hori ez da liburuaren ardatza izan. Pertsonaia zen ardatza eta bere izaera aterarazteko kontestu egokien kokatzea izan da nire asmoa.

Protagonista eta kontestua ezarri ostean hasi zinen istorioa asmatzen?

Nolabait bai. Gaur egun hainbeste entzuten den zaintzaren gaiak pisu handia izango zuela konturatu nintzenean, arduratu egin nintzen. Hain da konplexua,



ezen kontu handiz landu beharko bainuen. Batetik panfletoan jausteko arriskua eduki nezakeelako, askotan gertatzen da kontzeptu bat hainbestetan erabiltzen denean esanahia lausotzen joatea. Nobela hau, zaintzaz baino, interdependentziaz ari dela esango nuke. Eta bestetik, neurre burua zintzoki kokatu nahi nuelako, zeren eta nik hirugarren adinekoen zaintzaz gehiago dakit teoriarik, praktikan baino. “Nor naiz ni, honi buruzko diskurtso bat emateko”, esaten nion nire buruari.

Edukia baino inportantegoa da kontakizun moldea zuretzat.

Biak dira inportanteak baina saiatu naiz diskurtsoak albo batera uzten, eta mugatu naiz gertakizunen kontaketa egitera. Oso inportantea iruditzen zait, zaintza edo eguneroko bizi ditugun gatazkak “konplexutzea”, hau da, eguneroko gatazkaren aurpegi ezberdinak agertzea pertsonaien bidez. Sabinaren kasuan, zainduaren rolean eta zaintzailerenean. Zaintzailearen rola lotzen dugu asko sumisioarekin, baina Sabinaren kasuan badago boteretze moduko bat, ahalduntze modu bat. Rol horren beste ikuspegi bat eman nahi izan dut. Seme-alaben rola desberdintzea ere inportantea iruditzen zait, edozein etxetan adinekoen zaintzari lotuta gerta litezkeen talkak erakusteko.

Sabina askea da, bere buruaren jabe, baserria gobernatzeko du. Etxea gobernatzeko ere ari da nobela. Matriarkatuaren gaia ere ageri da nobelan.

Matriarkatua hizpide, Sabina karamelugoxoa izan zitekeen halako figura feminino idealizatu bat eraikitzeko. Euskal baserriaren kontaketa barruan beti existitu da arketipo hori, baina gaur egun ezbaian dago zorionez. Askotan entzun izan ditugu “gure etxean amak agintzen zuen” eta antzekoak, “gure etxean amak maneiatzen zituen diruak”. Baina hortxe dago gakoa: eduki duenean ere, eremu pribatuan eduki duela erabakimena emakumeak. Beraz ez dut uste euskal matriarkatu batez hitz egin daitekeenik gainontzeko esparru guztietan gizon-emakumeen arteko botere-banaketa orekatua izan ez denean.

Matriarkatu asmatu baten kontrako alegatua ere bada nobela.

Bai, neu ez nintzen liburua hala aurkeztu ausartu baina halaxe irakurri nion kritikari bati eta poztan naiz *Basa-k* ekarpen txiki hori egin badu.

Basa fikzioa da eta errealearen isla aldi berean.

Ez dut ezer berririk esan nobelan. Eguneroko-eguneroko ikusten dugu lan erreproduktiboak etxe gehienetan noren esku dauden. Zaintza-lanak ehuneko handi batean emakumeen esku egoten jarraitzen dute, sektore erabat prekarizatu da... Zentzu horretan, Sabinaren seme-alaben rola ez daude kasualitatez ezarrita.

Sabina, Henry koinatuaren zaintzaz arduratzen da. Hori du baserrian segitzeko arrazoiak.

Bai. Nobela ikusten da nola momentu batean erabakitzen duen baserriari eutsiko diola, horrek dakarren guztiarekin eta geroztik tentsio etengabea egongo da nolabait paretik kendu nahi dutenekin: auzoak, seme-alabak... Beraz, nobela hasten den momentuan, bere betebeharrak nagusia, Henryri eustea baino, autoritatea mantentzea dela esango nuke. Bere motorea ez da hainbeste koinatua zaintzea, baizik eta seme-alabek horretarako gai ikusten ez dutela konturatzean, haien aurrean bere indarra berrestea. Hirugarren adinekoen ari garenean, uste dut askotan gertatzen direla halako desautorizazio prozesuak. Baina azkenean, lehen esan dudana bezala, elkarmenpeketasun harreman bat da Sabina eta Henryrena, soka-tiran ari zirearen antzekoa: alde batetik elkar lotzen duten arren, bata jausten bada beste ere jausi egingo da.

Basa nobela elkarbizitza zailaren isla da. Tentsio handikoa. Amaiera tragikoa duena. Narrazioaren teknika berebizikoa izan da hori lortzeko. Liburua lau plano narratibotan egin dago. Nola moldatu zara?

Ezagutzen ditut ordenagailuaren aurrean jarri eta idatzi eta idatzi egiten dutenak. Nik geruzaz geruza idatzi dut, lehenengo osorik egin nuen eskema guztia eta gero lau plano horiek tartekatzen joan nintzen: hari nagusia (orainaldia), iraganeko pasarte laburrak, Sabinaren pentsakizunak eta kapitulu kapitulura dauden pasarte labur batzuk, beste ahots batetik kontatuak.

Edonola ere, alde aurretik horrela planteatu arren, nik ere idatzi ahala sortu dut liburua, kontzientea izanda idatzi dudana idatzi nahi nuela. Kontziente nintzen ez zela ekintza askoko nobela izango, nire ahalegina izan da dauden eguneroko gertakizun horiei tentsio bat ematea eta idatzi ahala topatu ditut esateko modu egokiak ere.

Elipsien teknika tarteko.

Nire gustuko literatura ez da dena eginda eta esana ematen duena. Irakurle bezala “etxe lanak” jartzen dizkidaten idazleak gustatzen zaizkit. Idazten ari izan naizenean nire beldurra izan da gehiegi esatea, bai diskurtsiboki bai narratiboki, ebidenteegia izatea. Elipsi gehienak kontzienteki egin ditut, irakurleari begira horrek suposatutazkeen arriskuen jakitun.

Sabinaren izaerak tentsioa sortzen du berez.

Kontziente nintzen nobelak *in crescendo* bat behar zuela, hori argi nuen bai kontaketan bai giroan. Nobela hasten da ospitaleko gela zuri isil batean eta bukatzen da baserriaren kortako ilunpean, sukaldeko hotsen eta txakurraren zaunka artean.

Telmo Esnalen Urte berri on, amona! filma heldu zait akordura, edota Asier Altunaren Amama.

Askok aipatu dizkidate, bai. Ez dakit Sabina pantaila batean funtzionatu ote lukeen baina idazten aritu naizen bitartean asko pentsatu dut iruditzen. Eszena eszena joan nintzen istorioa imajinatzen eta halaxe kontatzen saiatu naiz.

Bigarren irakurketa eskatzen duen nobela al da?

Batek baino gehiagok hori esan dit, loretzat interpretatu daiteke edo alderantziz. Badakit ez dela erraz irensten den nobela, abantaila da motza dela, baina astiro irakurri behar da, atzera-aurrera joanez torri horretan.

Zineman ikusiko al zenuke?

Oxala! Batzuei joan-etorri horiek zailak egin omen zaizkie, orduan, agian, batzuek istorioa film batean errazago antzeman-go lukete. ●